



***JAKINARAZPENEN GAINEN TXOSTENA,
ANIMALIEN ELIKADURARI DAGOKIONA***

RASFF-2011ko 3. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2011ko hirugarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko **102 jakinarazpen** izan dira. Horietatik **9 alertak** izan dira, **49 informazio-jakinarazpenak** eta **44 mugan egin diren ukapenak**.

Egindako kontrol-motari dagokionez, **47 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)** igorri dituzte, **27** pentsuen ekoizpen-kateko hainbat esparrutan egindako **Kontrol Ofizialek** eta **28 autokontroletan** atzeman dira, eta industriak berak igorri ditu.



Epe horretan jasotako **102 jakinarazpenetatik, 64 beste herrialde batekoak** izan dira. Jakinarazpen gehien **honako herrialde hauek** igorri dituzte: **14 Indiak, 12 Txilek eta 8 Argentinak**.


Nabarmentzekoa da jatorrian **Indiako** produktuen jakinarazpen gehienak (8) **kakahueteetan aflatoxinak atzeman direlako** egin direla. Indiako kakahuetea txorientzako (maskotak) elikagaiak egiteko erabiltzen da.

Txileri dagokionez, jakinarazpen guztiak (**12**) **arrain-irinari daude lotuta**. Jakinarazpen horietatik **11 kutsadura mikrobiologikoak eragin ditu eta 1 oxitetroziklinaren presentziak**.

Argentinako kasuei dagokienez, egindako **8 jakinarazpenak soja-irinean atzemandako salmonellaren** ondorio izan dira.

Jakinarazpen gehien egin duen herrialdea **Espania** izan da: **14** egin ditu orotara, eta guztiak daude loturik **salmonellaren** presentziarekin Txileko eta Marokoko arrain-irinean.

Arriskuak 2011ko iraila-abendua




Epe horretan atzemandako arrisku gehienak (**% 56**) **mikrobiologiari** lotutakoak izan dira. **Metal astunei dagozkienak % 12 izan dira, mikotoxinenak % 9, dioxinenak % 8 eta bestelako arriskuak (iruzurra, etiketatze okerra, legez kanpoko merkataritza, etab.) % 12.**

Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, gehienak **salmonelaren** ondorio izan dira (**57 jakinarazpenetatik, 48**). **Salmonella** atzeman den lehengaien artean, aipatzekoak dira arrain-irina, soja-irina eta txakurrentzako mastekagarriak.

Mikotoxinei (9) dagokienez, jakinarazpen guztiak egin dira B1 aflatoxina atzeman delako txorientzako pentsuetarako kakahueteetan.

Produktuka aztertuz gero, lehengaiak eragin dituzte jasotako jakinarazpenen **% 70, laguntza-animientzako pentsuek % 20, gehigarri eta aurre-nahasketek % 8 eta gizentzeko animalien pentsuek % 2.**

Produktutako jakinarazpenak



Jakinarazpenekin zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira, hurrenez hurren: **arrain-irinak (22), soja-irina (14), kakahueteak (11) eta txakurrentzako mastekagarriak (8).**

2011ko hirugarren lauhilekoan, animalien elikadurari buruz egin diren informazio-alerten eta jakinarazpenen laburpena

ARRISKUA	MOTA	ZK.	PRODUKTUAK	ZK.	ESPEZIEA/PRODUKTUA
Mikrobiologia	Salmonella	48	Soja-irina	3	<i>Salmonella</i> spp
				4	<i>Salmonella agona</i>
				1	<i>Salmonella agona, Salmonella banana, Salmonella mbandaka</i>
				1	<i>Salmonella amsterdam</i>
				1	<i>Salmonella (E taldea)</i>
				2	<i>Salmonella infantis</i>
				2	<i>Salmonella kedougou</i>
				1	<i>Salmonella senftenberg</i>
				7	<i>Salmonella</i> spp
				1	<i>Salmonella typhimurium</i>
				2	<i>Salmonella tennessee</i>
				2	<i>Salmonella</i> spp
				1	<i>Salmonella agona</i>
				2	<i>Salmonella typhimurium</i>
				1	<i>Salmonella anatum, Salmonella kentucky, Salmonella Montevideo, Salmonella orion, salmonella telaviv</i>
1	<i>Salmonella bareilly, Salmonella idikan</i>				
7	<i>Salmonella</i> spp				
2	<i>Salmonella</i> spp				
1	<i>Salmonella enterikoa, Salmonella senftenberg</i>				
1	<i>Salmonella senftenberg</i>				
1	<i>Salmonella</i> spp				
1	<i>Salmonella mbamdaka, salmonella typhimurium</i>				
1	<i>Salmonella enterikoa, salmonella montevideo</i>				
1	<i>Salmonella infantis</i>				
1	<i>Salmonella typhimurium</i>				
	Salmonellak eta enterobakteriak	7	Arrain-irina Haragi-irina	6 1	
	Enterobakteriak	1	Arrain-irina	1	
	Kutsatze mikrobiologikoak	1	Laguntza-animalientzako pentsua	1	
Mikotoxinak	B1 Aflatoxina	9	Kakahueteak	9	
Metal astunak	Artsenikoa	11	Laguntza-animalientzako pentsua	5	
			Sagar-mami idorra	2	
			Palmiste-torta	1	
			Pentsua	1	
			Legamiak	1	
			Magnesio-oxidoa	1	
Merkurioa		1	Bitaminen aurre-nahasketa	1	
Beruna		1	Fosfato monokaltzikoa	1	

2011ko hirugarren lauhilekoan, animalien elikadurari buruz egin diren informazio-alerten eta jakinarazpenen laburpena

ARRISKUA	MOTA	ZK.	PRODUKTUAK	ZK.	ESPEZIEA/PRODUKTUA
Dioxinak	Dioxinak	8	Azukre-erremolatxaren melaza	1	
			Azukre-erremolatxaren pelletak	1	
			Arrain-irina	2	
			Koloratzaileak	2	
			Kobre-sulfatoa	2	
Animalia-jatorriko osagaiak	PAEak	3	Arrain-irina	1	
			Txerri-odol idorra	1	
			Pentsu konposatua	1	
Beste batzuk	Baimendu gabeko gehigarria	1	Txakurren mastekagarriak	1	
			Beta-HCH	1	Arrain-irina
	Legez kanpoko merkataritza	2	Lastoa	2	
	Etiketatzeko okerra	2	Haragi-irina	1	
			Arrain-irina	1	
	Iruzurra	1	L-lisinarik ez gehigarrian	1	
	Malatioiaren presentzia	1	Kakahuetea	1	
	Produktu ezegokia (higiene falta)	3	Ekilore-olioa	1	
			Arrain-irina	1	
Kakahuetea			1		
Oxitretaziklina	1	Arrain-irina	1		